

I. Atala / Sección I

**Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa
Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia****Batzar Nagusiak / Juntas Generales****6/2008 FORU ARAUA, azaroaren 12koa; horren bidez Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutua sortu da.**

Bizkaiko Batzar Nagusiek, 2008ko azaroaren 12ko Osoko Bilkuran, Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutua sortu duen azaroaren 12ko 6/2008 Foru Araua onartu dutela jakinarazten dut eta nik berau aldarrikatu eta argitaratzeko agindua ematen dut, aplikatu ahal zaien herritar, norbanako eta agintari guztiak bete dezaten eta betearaz dezaten.

Bilbon, 2008ko azaroaren 18an.

Ahaldun Nagusia,
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

**AZAROAREN 12KO 6/2008 FORU-ARAUA,
BIZKAIKO IRAUNKORTASUNERAKO INSTITUTUA
SORTU DUENA****HITZAURREA**

Abenduaren 15eko 11/1986 Foru Arauaren bidez Lurralde Azterketarako Institutua sortu zen, izaera administratiboa duen erakunde autonomiadun gisa, Bizkaiko Lurraldeko errealitateari buruzko ezaugarria-maila altuago bat lortzeko tresna egoki bat izateko.

Urte hauetan Lurralde Azterketarako Institutuak Bizkaiko Foru Aldundiari laguntza emateko lan garrantzitsua egin du eta esperientzia handia bereganatu du Bizkaiko lurraldeari buruzko aholkularitza lanetan eta azterketak egiteko lanetan.

2004ko ekainean, Aalborg-en egin zen Hiri eta Herri Iraunkorren Europako IV. Biltzarrean, Europako tokiko gobernuek, horien artean Bizkaiko Foru Aldundiak, gaur egun Aalborg+10 Konpromisoak izenarekin ezagutzen ditugunak onartu zituzten.

Konpromiso horiei erantzuteko, 2005eko azaroaren 22an Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaia 21 Egitasmoa onartu zuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren Estrategia, Lurralde Historikoko Garapen Iraunkorra lortzeko. Horren helburua funtsezko lau zutabetan oinarritutako garapen eredu bat ezartzea da. Ondorengoak dira zutabeak: ongizate ekonomikoa, justizia soziala, ingurumenaren babesa eta kultur nortasuna. Xedea, beraz, helburu horiek foru erakundearen politika publikoetan koherentziaz txertatzea zen, bere gain hartuz iraunkortasunaren aldeko zenbait konpromiso.

Horrela, Foru Aldundiak garapen iraunkorra sustatzeko izan duen egiteko nagusiagatik eta bere eskumenen barruan, 30 lerro estrategiko ezarri ziren, Bizkaia 21 Egitasmoa egituratu zutenak, Aalborg-eko 10 konpromisoak mailaz maila betetzen laguntzeko. Bertako enuntziatu nagusiak ekintza zehatz bihurtu ziren, Foru Agenda 21 izena har dezakeenaren barruan.

Horri dagokionez, Bizkaia 21 Egitasmoak gizarte nahiz lurraldearen barruko kohesioa, hazkunde ekonomikoa, ingurumenaren babesa eta bere herritarren bizi-kalitatea bermatuko duen etorkizuna eraikitze bidea erakusten du.

Lurraldeko iraunkortasunerako politiken garapena ebaluatzeko, Bizkaia 21 Egitasmoko adierazleen egoera ezagutu behar da, baita Bizkaiko Iraunkortasunaren Udal Adierazleen Sistemarena ere. Horien zatirik handiena Bizkaiko Foru Aldundiko Estatistika Zerbitzuaren bidez lortzen da.

Horrez gain, ingurumenaren aldeko jarduketak sustatzeko politikak, bai laguntza programak zein zerga-tresna ezberdinak, arlo

NORMA FORAL 6/2008, de 12 de noviembre, por la que se crea el Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia.

Hago saber que las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado en sesión plenaria de fecha 12 de noviembre de 2008, y yo promulgo y ordeno la publicación de la Norma Foral 6/2008, de 12 de noviembre, por la que se crea el Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia, a los efectos que todos los ciudadanos, particulares y autoridades, a quienes sea de aplicación, la guarden y la hagan guardar.

Bilbao, a 18 de noviembre de 2008.

El Diputado General,
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

**NORMA FORAL 6/2008, DE 12 DE NOVIEMBRE,
POR LA QUE SE CREA
EL INSTITUTO PARA LA SOSTENIBILIDAD DE BIZKAIA****PREÁMBULO**

Por Norma Foral 11/1986, de 15 de diciembre, se creó el Instituto de Estudios Territoriales como organismo autónomo de carácter administrativo con el fin de contar con un instrumento idóneo para disponer del mayor grado de conocimiento sobre la realidad del Territorio de Bizkaia.

Durante estos años el Instituto de Estudios Territoriales ha desarrollado una importante labor de apoyo a la Diputación Foral de Bizkaia adquiriendo una experiencia considerable en las labores de asesoramiento y realización de estudios sobre el territorio vizcaíno.

En junio de 2004, durante la IV Conferencia Europea de Ciudades y Pueblos Sostenibles, celebrada en Aalborg, gobiernos locales europeos, entre ellos la Diputación Foral de Bizkaia, asumieron lo que hoy conocemos como Compromisos de Aalborg+10.

Como respuesta a dichos compromisos, el 22 de noviembre de 2005 la Diputación Foral de Bizkaia aprobó el Programa Bizkaia 21, la Estrategia de la Diputación Foral de Bizkaia para el Desarrollo Sostenible del Territorio Histórico, cuyo objetivo es establecer un modelo de desarrollo asentado sobre cuatro pilares básicos: el bienestar económico, la justicia social, la protección del medio ambiente y la identidad cultural. Se trataba, por tanto, de integrar coherentemente estos objetivos en las políticas públicas del ente foral asumiendo una serie de compromisos a favor de la sostenibilidad.

Así, por el papel central de la Diputación Foral en promover un desarrollo sostenible, y de acuerdo a sus competencias, se establecieron 30 líneas estratégicas con las que se estructura el Programa Bizkaia 21 y que contribuirán al cumplimiento gradual de los diez compromisos de Aalborg, traduciendo los grandes enunciados en actuaciones concretas en lo que podría denominarse la Agenda Foral 21.

En este sentido, el Programa Bizkaia 21 marca el camino a seguir para construir un futuro que garantice la cohesión social y territorial de Bizkaia, el crecimiento económico, la protección ambiental y la calidad de vida de su ciudadanía.

La evaluación del desarrollo de las políticas de sostenibilidad del Territorio requiere conocer el estado de los indicadores del Programa Bizkaia 21, así como del Sistema de Indicadores Municipales de Sostenibilidad de Bizkaia, que en gran parte se obtienen a través del Servicio de Estadística de la Diputación Foral de Bizkaia.

Además, las distintas políticas incentivadoras de actuaciones en favor del medio ambiente, tanto los programas de ayudas como

horretan eskumena duten administrazioek sustatu izan dituzte; beraz, beharrezkotzat jo da bai udal erakundeei zein programa horien onuradun izan daitezken herritarrei informazio hori emango dien tresna baliagarri bat izatea.

Bizkaiko Foru Aldundiak Lurralde Historikoko Garapen Iraunkorra bermatzeko duen konpromiso irmoak Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutua sortzeko beharra eragin du. Institutu hori Ingurumen Sailari atxikita egongo da eta bere alde desagertuko den Lurralde Azterketetarako Institutuaren egitura eta esperientzia aprobetxatuko ditu.

Horrela, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren 3. artikulua babesean, Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutua sortu da, Foru Aldundiko sailen jardunerako laguntza tresna izateko asmoz, Bizkaiko garapen iraunkorraren aldeko informazioa sortu, aholkuak eman edo ekimenak iradoki ahal izango dituen heinean.

I. TITULUA

ARAUBIDE JURIDIKOA ETA XEDEAK

1. artikulua

1. Desagertu egingo da Bizkaiko Lurralde Azterketetarako Institutua, abenduaren 15eko 11/1986 Foru Arauaren bidez sortutakoa.

2. Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutua sortu da, Lurralde Historikoko erakunde-administrazioaren zati gisa. Institutua izaera administratiboa duen erakunde autonomiadun gisa eratu da, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Sailari atxikita.

2. artikulua

Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutuak nortasun juridiko osoa du eta bere xedeak betetzeko behar dituen bitartekoak izango ditu.

3. artikulua

Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutuaren egoitza Bilbon egongo da.

4. artikulua

Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutuaren xedea Lurralde Historikoko Garapen Iraunkorraren aldeko politiken behatokia izatea da.

5. artikulua

Xede hori garatzeko, Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutuak honako eginkizun hauek izango ditu:

1. Bizkaiko Lurraldeko garapen iraunkorraren aldeko politiken jarraipena egitea eta horiek ebaluatzea.

2. Bizkaiko Lurralde Historikoko genero politiken jarraipena egitea

3. Azterlanak egitea ingurumenaren babesaren arloan, garapen ekonomikoaren arloan, eta, lurralde historikoaren eskumenean eremuaren barruan, Institutuaren Urteko Kudeaketa Planean sartzeko justizia sozialaren arloan.

4. Aholkuak ematea Bizkaiko Lurralde Historikoko udalei eta, oro har, Bizkaiko herritarrei, Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutuaren eskumenean arloetarako dauden finantziario programari buruz.

5. Plan eta programa estatistikoak prestatu eta egitea. Horretarako honako hauek dagozkie:

— Gai estatistiko hauei buruzko azterlanak eta txostenak egitea.

— Plan eta programa estatistikoek buruzko ildo nagusiak formulatzea.

— Egindako plan eta programa horiek koordinatzea, horien kongruentzia bermatuz.

los distintos instrumentos fiscales, están siendo promovidas por las distintas administraciones con competencias en la materia, por lo que se considera necesario contar con una herramienta útil que facilite este tipo de información, tanto a los entes municipales como a los ciudadanos que se puedan beneficiar de las mismas.

El firme compromiso por parte de la Diputación Foral de Bizkaia a favor del desarrollo sostenible del Territorio Histórico ha motivado la necesidad de crear el Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia, adscrito al Departamento de Medio Ambiente aprovechando la estructura y experiencia del Instituto de Estudios Territoriales que se extingue a favor del primero.

Así, al amparo del artículo 3 de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, nace el Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia con vocación de servir como elemento de apoyo para la actuación de los distintos departamentos de la Diputación Foral en la medida en que pueda generar información, aportar asesoramiento o sugerir iniciativas a favor del desarrollo sostenible de Bizkaia.

TÍTULO I

RÉGIMEN JURÍDICO Y FINES

Artículo 1

1. Se extingue el Instituto de Estudios Territoriales de Bizkaia creado por Norma Foral 11/1986, de 15 de diciembre.

2. Se crea el Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia, como parte integrante de la Administración Institucional del Territorio Histórico. El Instituto se configura como organismo autónomo de carácter administrativo, adscrito al Departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia.

Artículo 2

El Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia goza de plena personalidad jurídica y dispondrá de los medios necesarios para el cumplimiento de sus fines.

Artículo 3

La sede del Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia radicará en Bilbao.

Artículo 4

El fin del Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia es constituirse en el observatorio de las políticas de Desarrollo Sostenible del Territorio Histórico.

Artículo 5

En desarrollo de su fin, el Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia ejercerá las siguientes funciones:

1. Seguimiento y evaluación de las políticas de desarrollo sostenible del Territorio de Bizkaia.

2. Seguimiento de las políticas de género del Territorio Histórico de Bizkaia.

3. Elaboración de estudios en materias relativas a la protección ambiental, el desarrollo económico y la justicia social que, inscrita en el ámbito de competencias del Territorio Histórico, se incluya en el Plan Anual de Gestión del Instituto.

4. Asesoramiento a los ayuntamientos del Territorio Histórico y, en general, a la ciudadanía de Bizkaia sobre programas de financiación en las áreas sobre las que ejerce su competencia el Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia.

5. Elaboración y ejecución de planes y programas estadísticos, para lo cual corresponden:

— La realización de estudios e informes sobre estas materias estadísticas.

— La formulación de las líneas fundamentales relativas a planes y programas estadísticos.

— La coordinación de los citados planes y programas elaborados, asegurando su congruencia.

— Eta, oro har, Autonomi Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foru erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 9. artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoaren estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legean eta Estatistikarako Foru Batzordea sortu zuen abenduaren 3ko 92/1986 Foru Dekretuan xedatutakoaren ondorioz dagokion guztia.

6. Edonola ere, Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutuari ezarritako eginkizunek ez dute kalterik eragingo Bizkaiko Foru Aldundiko sailei dagozkien eginkizunetan.

6. artikulua

Batzar Nagusiek eta Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeek informazioa, aholkuak, txostenak eta azterlanak eskatu ahal izango dizkiote Institutuari, beti ere foru arau honen 5. artikuluan adierazitako gaiekin lotuta badaude.

II. TITULUA

BIZKAIKO IRAUNKORTASUNERAKO INSTITUTUAREN ANTOLAKETA

I. KAPITULUA

GOBERNU ORGANOAK

7. artikulua

Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutuaren gobernu organoak honako hauek dira:

- a) Kontseilua.
- b) Kontseiluburua.
- c) Gerentea.

II. KAPITULUA

KONTSEILUA ETA BERE ESKUDANTZIAK

8. artikulua

1. Kontseilua Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutuaren organo gorena da eta honako kide hauek osatuko dute:

- a) Kontseiluburua: Ingurumeneko diputatua.
- b) Buruordea: Ingurumeneko zuzendari nagusia.
- c) Kontseilukideak:

— Iraunkortasunerako politketan eragin handiena duten foru sailletako hiru ordezkari, zuzendari nagusi kargua dutenak. Bizkaiko Foru Aldundiak izendatuko ditu Ingurumeneko diputatuak proposatuta.

— Bizkaiko Batzar Nagusietako hiru ordezkari.

— Gerentea, hitz egiteko eskubideaz, baina botoa emateko eskubiderik gabe.

2. Idazkari lanetan Kontseiluak horretarako izendatzen duen pertsona arituko da.

9. artikulua

Kontseiluaren eskumenak dira:

1. Institutuaren Urteko Kudeaketa Plana onartu, aldatu eta berrikustea.
2. Aurrekontuaren proiektua, kreditu eragiketak, kontuen likidazioa eta azterketa onartzea.
3. Barne Araubidea onartzea.
4. Langileen zerrenda eta horien ordainsariak onartzea, indarrean dauden xedapenen arabera.
5. Bizkaiko Foru Aldundiari 2.000.000 euro baino gehiagoko kontratuak egitea proposatzea.
6. Ezarri ahal zaizkion heinean, indarrean dagoen legeriak Foru Aldundiari ematen dizkion eskumenak.

— Y en general, todos los derivados de lo dispuesto en el artículo 9 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de relaciones entre las Instituciones comunes de la Comunidad Autónoma y los órganos forales de sus Territorios Históricos; en la Ley 4/1986, de 23 de abril, de estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y del Decreto Foral 92/1986, de 3 de diciembre, por el que se crea la Comisión Foral de Estadística.

6. En cualquier caso, las funciones asignadas al Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia lo serán sin perjuicio de las competencias que correspondan a los diferentes Departamentos de la Diputación Foral de Bizkaia.

Artículo 6

Las Juntas Generales, así como los entes locales del Territorio Histórico de Bizkaia, podrán solicitar del Instituto información, asesoramiento, informes y estudios que estén relacionados con las materias que se señalan en el artículo 5 de esta Norma Foral.

TÍTULO II

ORGANIZACIÓN DEL INSTITUTO PARA LA SOSTENIBILIDAD DE BIZKAIA

CAPÍTULO I

ÓRGANOS DE GOBIERNO

Artículo 7

Los órganos de gobierno del Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia son:

- a) El Consejo.
- b) El Presidente del Consejo.
- c) El Gerente.

CAPÍTULO II

DEL CONSEJO Y SUS ATRIBUCIONES

Artículo 8

1. El Consejo es el órgano supremo del Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia y estará integrado por los/las siguientes miembros:

- a) Presidente: El/la diputado/a de Medio Ambiente.
- b) Vicepresidente: El/la director/a general de Medio Ambiente.
- c) Vocales:

— Tres representantes con rango de director general de departamentos forales con mayor incidencia en políticas de sostenibilidad nombrados por la Diputación Foral de Bizkaia a propuesta del/de la diputado/a de Medio Ambiente.

— Tres representantes de las Juntas Generales de Bizkaia.

— El/la Gerente, con voz pero sin voto.

2. Actuará como Secretario quien con tal carácter sea nombrado por el Consejo.

Artículo 9

Son atribuciones del Consejo:

1. La aprobación, modificación y revisión del Plan Anual de Gestión del Instituto.
2. La aprobación del proyecto de presupuesto, las operaciones de crédito, la liquidación y la censura de cuentas.
3. La aprobación del reglamento interno.
4. La aprobación de la plantilla y su remuneración, de conformidad con las disposiciones vigentes.
5. Proponer a la Diputación Foral de Bizkaia la celebración de contratos de cuantía superior a 2.000.000 de euros.
6. En lo que sean aplicables, las atribuciones que a la Diputación Foral le confiere la legislación vigente.

III. KAPITULUA

KONTSEILUBURUA ETA BERE ESKUDANTZIAK

10. artikulua

Kontseiluburua Ingurumeneko foru diputatua izango da.

11. artikulua

Kontseiluburuari honako eskumen hauek dagozkie:

1. Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutuaren ordezkaria izatea hauen aurrean: auzitegiak eta epaitegiak, administrazioak, korporazioak, agintariak, notarioak eta norbanakoak. Ordezkaritza hori erabiltzeko aginduak eta botereak ematea eta ordezkaritza hori bere gain hartzea hala dagokionean.

2. Ekintza judizialak eta administrazio ekintzak egitea eta Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutuaren alde jardutea bere eskumeneko gaitan. Era berean, ahalmen horiek erabiltzea, presa dagoenean, Kontseiluaren eskumeneko gaitan eta horren berri ematean kontseiluari, honek egiten duen lehenengo bileran, berrets ditzan.

3. Kontseilua deitzea eta horren buru izatea, gai-zerrenda zehaztea eta bilerak hasi eta bertan behera uztea, eztabaidak zuzentzea, berdinketak bere kalitatezko botoarekin ebaztea eta bilera horien aktak ikus-onestea.

4. Bizkaiko Foru Aldundiari gerentea izendatu eta kargutik kentzeko proposamena egitea.

5. Ingurumen Sailaren eta Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutuaren artean egon daitezken eskumen arazoak ebaztea.

6. Erakundearen interes bereziak gobernatu eta administrazio ahalmenak, erakundeko beste organo bati berariaz eman ez zaizkionean, baita Kontseiluak ematen dion edozein ahalmen ere.

IV. KAPITULUA

GERENTEA ETA BERE ESKUDANTZIAK

12. artikulua

Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutuko gerentea Foru Aldundiaren foru dekretu bidez izendatuko da, baita kargutik kendu ere, hala dagokionean, Ingurumen Saileko foru diputatu titularrak proposamena egin ondoren. Gerentea Institutuaren berezko xede diren azterketa-eremuetan ospe handia duen pertsona bat izango da.

13. artikulua

Honako hauek dira gerentearen eginkizunak:

1. Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutua zuzendu eta administrazioa, kontseiluburuaren eta buruordearen agindupean.

2. Indarrean dagoen legeria, onartzen diren araudiak, Institutuko Kontseiluaren erabakiak eta kontseiluburuaren ebazpenak betetzea eta horiek betearaztea.

3. Institutuan sartuta dauden zerbitzuen zuzendari bete-arazlea izatea eta ardura hori betetzea.

4. Aurrekontuaren aurreproiektuak eta Urteko Kudeaketa Plana egitea eta Kontseiluari aurkeztea.

5. Institutua kudeatzea, behar bezala onartutako aurrekontuekin bat etorrira.

6. Institutuaren plangintza orokorra egitea.

7. Institutuaren menpeko zerbitzuek edozein motatako erakunde ofizialekin dituzten harremanak koordinatzea.

8. Langileen burua izatea.

9. Kontratuak egitea, Kontseiluaren erabakiz ezarritako mugaren barruan.

10. Kontseiluburuak edo Kontseiluak bere esku utzitako gainerako guztiak.

CAPITULO III

DEL PRESIDENTE DEL CONSEJO Y SUS ATRIBUCIONES

Artículo 10

El/la Presidente/a del Consejo será el/la diputado/a foral de Medio Ambiente.

Artículo 11

Corresponde al Presidente del Consejo las siguientes facultades:

1. Representar al Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia ante los tribunales y juzgados, administraciones, corporaciones, autoridades, notarios y particulares; conferir mandamientos y poderes para ejercer dicha representación y asumirla para sí en los casos que proceda.

2. Ejercer las acciones judiciales y administrativas y la defensa del Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia en materias que sean de su competencia. Asimismo, ejercer dichas facultades, en caso de urgencia, en materias que sean de competencia del Consejo, dando cuenta al mismo en la primera reunión que este celebre para su ratificación.

3. Convocar y presidir el Consejo, fijar el orden del día y abrir y suspender las sesiones de esta, dirigir sus deliberaciones, decidir los empates con su voto de calidad y visar las actas de tales sesiones.

4. Proponer a la Diputación Foral de Bizkaia el nombramiento y cese del/de la Gerente.

5. Dirimir los eventuales conflictos de competencia que existan entre el Departamento de Medio Ambiente y el Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia.

6. Cuantas facultades de gobierno y administración de los intereses peculiares del ente no estén atribuidas de un modo expreso a otro órgano del mismo, así como cualesquiera otras que le puedan ser delegadas por el Consejo.

CAPÍTULO IV

DEL GERENTE Y SUS ATRIBUCIONES

Artículo 12

El/la Gerente del Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia será nombrado, y en su caso cesado, por decreto foral de la Diputación Foral, a propuesta del/de la diputado/a foral titular del Departamento de Medio Ambiente. El Gerente será una persona de reconocido prestigio en los campos de estudio que constituyen los fines propios del Instituto.

Artículo 13

Son funciones del/de la Gerente:

1. La dirección y administración del Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia bajo la dependencia del Presidente y Vicepresidentes del Consejo.

2. Cumplir y hacer cumplir la legislación vigente, los reglamentos que se aprueben y los acuerdos del Consejo del Instituto y las resoluciones del/de la Presidente del Consejo.

3. Ostentar y ejercer la dirección ejecutiva de los servicios integrados en el Instituto.

4. Elaborar y elevar al Consejo los anteproyectos del presupuesto y del Plan Anual de Gestión.

5. La gestión del Instituto de conformidad con los presupuestos debidamente aprobados.

6. La planificación general del Instituto.

7. La coordinación de las relaciones de los servicios dependientes del Instituto con organismos oficiales de todo orden.

8. La jefatura de personal.

9. La celebración de contratos con el límite establecido por acuerdo del Consejo.

10. Todas aquellas que le sean delegadas por el Presidente o el Consejo.

III. TITULUA

ARAUBIDE JURIDIKOA, LANGILEAK
ETA BALIABIDEAK

I. KAPITULUA

ARAUBIDE JURIDIKOA

14. artikulua

Gobernu organoen funtzionamendurako araubidea Kontseiluaren gehiengo osoz onartutako Barne Araubideak arautuko du. Holakorik ez badago, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea ezarriko da.

Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutuaren aurrekontuak jasotako kredituen araubide juridikoa Foru Aldundiari, oro har, ezarri behar zaiona izango da.

II. KAPITULUA

LANGILEAK ETA BALIABIDEAK

15. artikulua

Institutuak bere xedeak betetzeko behar dituen langileak izango ditu. Langile horiek EAEko herri administrazioetako funtzionarioak izan daitezke.

16. artikulua

Bere xedeak betetzeko, Institutuak bere urteko aurrekontua izango du, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretan sartuta egongo dena.

Lehenengo xedapen gehigarria

Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutuak bere gain hartuko ditu Bizkaiko Lurralde Azterketetarako Erakundeak dituen edo izan ditzaken mota guztietako eskubideak eta betebeharrak eta, foru arau hau indarrean sartzen denetik, BLA Eren lekua beteko du bai hirugarren batzuen aurrean, zein Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean edo horren zerbitzura dauden langileei dagokienez. Hauek automatikoki sartuko dira Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutuan eta une horretara arte izan dituzten eskubide eta betebeharrak izango dituzte.

Bigarren xedapen gehigarria

Foru Aldundia berregituratu egiten delako, Ingurumen Sailak izena aldatzen badu edo garapen iraunkorraren arloko eskumenak beste foru sail batek hartzen baditu, Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutuaren atxikipenaren aldaketak foru dekretu bidez egingo dira.

Xedapen indargabetzailea

Indargabetuta geratu da Lurralde Azterketetarako Erakundea sortu zen abenduaren 15eko 11/1986 Foru Araua, baita foru arau honetan xedatutakoarekin bat ez datozen edo horren aurkakoak diren lerrun bereko edo beheragoko xedapenak.

Azken xedapenak**Lehenengoa**

Baimena ematen zaio Foru Aldundiari foru arau hau garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena

Foru arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2008.eko azaroaren 12an.

Batzar Nagusietako Lehenengo Idazkariak,
INÉS NEREA LLANOS GÓMEZ

Batzar Nagusietako Lehendakariak,
ANA MADARIAGA UGARTE

(I-1895)

TÍTULO III

DEL RÉGIMEN JURÍDICO DEL PERSONAL
Y LOS RECURSOS

CAPÍTULO I

DEL RÉGIMEN JURÍDICO

Artículo 14

El régimen de funcionamiento de los órganos de Gobierno será regulado por un reglamento interno aprobado por la mayoría absoluta del Consejo. En su defecto será de aplicación la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

El régimen jurídico de los créditos consignados en el presupuesto del Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia será el que, con carácter general, le sea de aplicación a la Diputación Foral.

CAPÍTULO II

DEL PERSONAL Y LOS RECURSOS

Artículo 15

El Instituto tendrá el personal que precise para el cumplimiento de sus fines. Dicho personal podrá estar integrado por funcionarios de las Administraciones Públicas Vascas.

Artículo 16

Para el cumplimiento de sus fines el Instituto contará con un presupuesto anual propio, incluido dentro de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia.

Disposición adicional primera

El Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia quedará subrogado en cuantos derechos y obligaciones de toda índole sea o pudiera ser titular el Instituto de Estudios Territoriales de Bizkaia, ocupando desde la entrada en vigor de la presente Norma Foral la posición de este a todos los efectos tanto frente a terceros, como frente a la Diputación Foral de Bizkaia, como respecto del personal a su servicio quien se integrará automáticamente en el Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia y mantendrá los mismos derechos y deberes que tuvieran hasta dicho momento.

Disposición adicional segunda

En el supuesto de que por razones de reestructuración de la Diputación Foral el Departamento de Medio Ambiente cambiara de denominación o las competencias en materia de desarrollo sostenible pasaran a otro departamento foral, los sucesivos cambios de adscripción del Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia se realizarán por decreto foral.

Disposición derogatoria

Queda derogada la Norma Foral 11/1986, de 15 de diciembre, por la que se crea el Instituto de Estudios Territoriales, así como cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan o contradigan lo dispuesto por la presente Norma Foral.

Disposiciones finales**Primera**

Se autoriza a la Diputación Foral para que dicte cuantas disposiciones sean precisas para el desarrollo de esta Norma Foral.

Segunda

La presente Norma Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Bilbao, a 12 de noviembre de 2008.

La Secretaria Primera de las Juntas Generales,
INÉS NEREA LLANOS GÓMEZ

La Presidenta de las Juntas Generales,
ANA MADARIAGA UGARTE

(I-1895)